

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

5/2019 iragarkia ekainaren 13koa, 2019ko ekitaldian indarrean dagoen aurrekontuaren mugen behin betiko banaketa argitaratzeko dena. Banaketa hori gutxi gorabehera ezarri zen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 4ko 156/2018 Foru Dekretuan (18. oinarrian), zeinaren bidez Foru Aldundiaren diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira 2019ko ekitaldian Bizkaiko Lurralde Historikoan kultura-proiektuak egiteko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 4ko 156/2018 foru dekretuaren bidez, Foru Aldundiaren diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira 2019ko ekitaldian Bizkaiko Lurralde Historikoan kultura-proiektuak egiteko. (241. Bizkaiko Aldizkari Ofizialea, abenduaren 17koa).

Aipatutako foru dekretuaren 18. oinarriak 2019rako indarreko aurrekontu-muga ezartzen du, bai eta mugaren banaketa ere, dekretu horren babespean emango diren foru diru-laguntzei erantzuteko dena. Oinarri honen 4. zerbakiaren adierazten denez, banaketa hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta, Diru-laguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua 4. eta 5. zerbakiaren arabera, deialdia ebatzi baino lehen aldatu ahal izango da, onuradun talde beraren barruan, Euskara eta Kulturako foru diputatuaren foru agindu bidez. Kreditu erabilgarrien behin betiko deklarazioa zein kredituon banaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, dagozkien gastu-espeditenteen aldaketak egin ondoren. Horrek, baina, ez du ekarriko ez eskabideak aurkezteko epe berri bat irekitzea ez deialdia ebazteko epe berri bat hastea.

Diru-laguntzak emateko 2019ko indarreko aurrekontu-muga, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 4ko 156/2018 Foru Dekretuan jasotzen dena, honako hau zen:

- Elkarteak, fundazio pribatuak eta gizarte-ekimeneko kooperatibak: miloi bat eta hiru mila (1.003.000) euro, 2019ko 0405 G/334104/45100 (2012/0024 proiektua) aurrekontuko partidaren kontura.
- Udalak, udal erakunde autonomoak, eta mankomunitateak: laurehun eta hamabost mila (415.000) euro, 2019ko 0405 G/334104/43299 (2012/0024 proiektua) aurrekontuko partidaren kontura.

Muga hori honela banatuko zen:

- a) Foru dekretu honen II. kapituluko diru-laguntzetarako:
 - Erakundeak, fundazio pribatuak eta gizarte-ekimeneko kooperatibak: hirurehun mila (300.000) euro.
 - Udalak, udal erakunde autonomoak, eta mankomunitateak: ehun eta laurogei mila (180.000) euro.
- b) Foru dekretu honen III. kapituluko diru-laguntzetarako:
 - Erakundeak, fundazio pribatuak eta gizarte-ekimeneko kooperatibak: seirehun eta hirurogeita hamahiru mila (673.000) euro.
 - Udalak, udal erakunde autonomoak, eta mankomunitateak: ehun eta hirurogeita hamabost mila (175.000) euro.
- c) Foru dekretu honen IV. kapituluko diru-laguntzetarako:
 - Erakundeak, fundazio pribatuak eta gizarte-ekimeneko kooperatibak: hogeita hamar mila euro (30.000).
 - Udalak, udal erakunde autonomoak, eta mankomunitateak: hirurogei mila (60.000) euro.



Dagozkion gastu espedienteetan aldaketak egin ondoren, Euskara eta Kulturako foru diputatuaren foru agindu hauen bidez: maiatzaren 28ko 1663/2019 Foru Aginduak, eta maiatzaren 31ko 1710/2019koa, erabilgarri dauden kredituak hauexek dira:

- Elkarteak, fundazio pribatuak eta gizarte-ekimeneko kooperatibak: miloi bat eta hiru mila (1.003.000) euro, 2019ko 0405 G/334104/45100 (2012/0024 proiektua) aurrekontuko partidaren kontura.
- Udalak, udal erakunde autonomiadunak, eta mankomunitateak: laurehun eta hamabost mila (415.000) euro, 2019ko aurrekontuko 0405 G/334104/43299 (2012/0024 proiektua) aurrekontuko partidaren kontura.

Eta behin betiko banaketa hau da:

- a) Foru dekretu honen II. kapituluko diru-laguntzen kasuan:
 - Elkarteak, fundazio pribatuak eta gizarte-ekimeneko kooperatibak: hirurehun mila (300.000) euro.
 - Udalak, udal erakunde autonomoak, eta mankomunitateak: ehun eta laurogei mila (180.000) euro.
- b) Foru dekretu honen III. kapituluko diru-laguntzen kasuan:
 - Elkarteentzat, fundazio pribatuentzat eta gizarte-ekimeneko kooperatibentzat: seirehun eta hirurogeita hamahiru mila (673.000) euro.
 - Udalak, udal erakunde autonomoak, eta mankomunitateak: ehun eta hirurogeita hamar mila berrehun eta hirurogeita hiru euro eta hogeita bederatzi zentimo (170.263,29).
- c) Foru dekretu honen IV. kapituluko diru-laguntzen kasuan:
 - Elkarteak, fundazio pribatuak eta gizarte-ekimeneko kooperatibak: hogeita hamar mila (30.000) euro.
 - Udalak, udal erakunde autonomoak, eta mankomunitateak: hirurogeita lau mila zazpirehun eta hogeita hamasei euro eta hirurogeita hamaika zentimo (64.736,71).

Bilbon, 2019ko ekainaren 13an. — Euskara eta Kulturako foru diputatua, Lorea Bilbao Ibarra